

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Jaunaren Bataioa

2010 Urtarrilak 10 (C urtea)

Patxi Otamendi

Isaias 42, 1-4. 6-7

Apostoluen Eginak 10, 34-38

Lukas 3, 15-16. 21-22

- Duela egun batzuk Agerkunde jaia ospatu da. Han haurra zena oraingoan heldua. Pertsona honetaz gaurko pasartean zeruko ahotsak baieztatzen du Ekialdetik etorritako jakintsuek nabarmendu zutena: Mesias / Jainkoaren Seme dela. Gerora Tabor mendi gainean ere berdin aldarrikatuko du Jainkoaren ahotsak: bere “Semea” dela.

- Ebanjelariak ados dira Jesusen bizitza publikoaren hasiera puntua Jordango bataioan kokatzen. Jordan ibaia Palestinako garrantzitsuena zen, baina lurralde basatia zeharkatzen du.

Pasartearen aurreko hasieran (3,1) esaten da noiz gertatu zen Jordan ibaiko bataioa: “Tiberio enperadorearen agintealdiko hamabosgarren urtean”. Horren arabera, Joanek eta Jesusen 33 urte zituzten. Gutxi gora-behera garai hartako behartsuen bizi-itxaropen adina. Ez ziren ez gazte batzuk, helduak baino. Populazioaren % 80a behartsua zen, eta bi hauek esparru sozial horietakoak.

- Lukasek garai hartako 7 pertsonai politikoen izenak ematen ditu: Tiberio, Pontzio Pilato, Herodes eta bere anaia Felipe, Lisanio, Anas eta Kaifas. Zazpi hauek une batean lerrokatu daitezkeenez, aipamenak ez du okerrik. Lukas sendagile izateaz gain historialaria zen, eta Jesusen garaia eta inguru historikoa zehaztu nahi ditu. Kontakizunaren helburua ez da hainbeste gertaera haren kronika ematea, baizik Nazaretoko Jesusen benetako izaera eta misioa aurkeztea. Aldi berean, Espiritua dela misiogintzara bultzatzen duena.

- Soilik Lukasen bertsioan ageri da jendea galdezka zebilela Mesias nor ote den: Joan Bataiatzailea ala Jesus. Joanek dio bera ez dela Mesias, etortzekoa dena baizik. Bata ala bestea bereizteko saio horrek garrantzi handiago hartzen du Joanen ebanjelioan. Ez zen eztabaida hutsala, zeren jakina da lehen mendean zenbait jarraitzaileek Joanen ildoan lehenesten iraun zutela.

- Izan zitekeen Joan Bataiatzaile Qumran-go komunitate aszetikoan bizi izana. Qumran-go esenioak Jerusalemgo Tenplua gaitzesten zuten, eta berrikuntza aszetiko zorrotza aldarrikatzen. Hortik uler daiteke Joanen asmoak erabat aszetikoak izatea. Itxura hori ematen du, behintzat, Joanek urez bataiatuz eta aldi berean bihotz-aldaketa eskatuz.

- Kontakizunaren erdian Lukasek dio Joan Bataiatzailea atxilotua izan dela. Benetan jarrera erradikala zuen bataiatzaileak, bai botere politiko zein erlijiosoaren aurrean. Jesusi antzeko gertatuko zaio: botere erlijiosoak beti susmopean izan zuen. Azkenean nola garbitu eta desagerrarazteko kalkulutan ibili ziren.

- Jesusen bataiatzeak bi xehetasun esangarri ditu: jende multzoan murgilduta doala bataioa hartzea. Eta gainera, otoitzean. Hau da, herriaren muin sakonean sartzen da. Bestalde Jainkoaren nahiari zabalik dago: otoitz jarreran. Benetako otoitzak bizitza sakonki ezagutzera darama. Baita behar diren arriskuak hartzea. Hiru osagai horik nabariak izango dira Jesusen ibilbidean: otoitza, bizitzan jasotako esperientzia, eta ausardia.

Zeruko mintzo batek zera esaten du: “Zu zaitut neure Semea, neure maitea”. Esaldi publikoa.. Mateo eta Markosen bertsioetan, ordea, soilik Jesusen kontzientziara luzatutako, aitopena da.